



LEGE-HIZKERAREN INGURUKO ZALANTZAK ARGITZEKO

hizkuntza-baliabideak euskaraz

Bere izenak ageri duenez, lege-hizkera legegintzaren diskurtsoan egiten den hizkuntzaren erabilerari dagokio. Edonola ere, nahiz eta sorburuz lege-testuetan gauzatzen den, askotariko testuinguru eta testuetan erabiltzen da, Zuzenbideak eguneroko bizitzaren hainbat eta hainbat esparrutan baitu sarbidea. Jakinaenez, lege-testuek ezaugarri diskurtsibo, egiturazko eta formal zehatz batzuk dituzte eta adierazpide konbentzionalak erabiltzen dituzte; betiere, Zuzenbidearen oinarriak, normografiaren jarraibide orokorrak, teknika legegileen prozedurak, estilo-irizpide linguistikoak eta terminologia juridikoa aintzat hartuta. Horiek horrela, hainbat protokolo egongo dira legeak proposatzeko, garatzeko, idazteko, interpretatzeko eta balioesteko, eta horiek guztiek eragin nabarmena izango dute lege-testuaren elaborazio linguistikoan. Elaborazio horrek hainbat baliabide arretaz aukeratzea eskatzen du: marka diskurtsiboak, formulak eta esapideak, terminologia juridikoa, eta abar. Zeregin horretan oso lagungarriak dira testu-ereduen biltegiak, corpusak, estilo-liburuak, glosarioak...

Legegintza elebidunaren edo eleanitzaren kasuan, bestalde, oraintxe aipatu ditugun diziplina horien guztien ekarpenei Zuzenbide Konparatuaren, Hizkuntza Zuzenbidearen eta Itzulpengintza Juridikoaren ekarriak erantsi behar zaizkie. Izan ere, lege-testu elebidun edota eleanitzak idaztean, eragin erabakigarria izan dezakete bi hizkuntzen lege-estatusak, horien garapen funtzionalak eta euren arteko harreman soziolinguistikoak. Horrela, aldagai horien arabera, hizkuntza ezberdinetan egindako testuak bata bestearen mendeko izango dira kasu batzuetan, baina elkarkideak ere izan daitezke beste batzuetan; bai balio juridikoaren ikuspegitik eta baita hizkuntzaren erabileraren aldetik ere. Esparru honetan sortzen da korredakzioa edo idazketa elebiduna izeneko legegintza-prozedura. Itzulpengintza-prozesu klasikoaren aldean, idazketa elebidunak lege-testuen hizkuntza ezberdinetako bertsioen arteko parekotasun juridiko eta funtzional osoa bermatzea du helburu. Horretarako, ezinbestekoa da bi lege-hizkerak doitzea eta harmonizatzea; bestela, nekez izango dira bi bertsioak bata bestearen pareko. Zeregin horretan oso baliagarriak izango dira kontsulta-baliabide elebidunak (edo, kasuaren arabera, eleanitzak): datu-base terminologikoak, lege-testu elebidunen corpusak, itzulpen-memoriak...



Alabaina, aitortu behar da euskarazko lege-hizkera ez dela oraindik gaztelaniatik askatu, gehienetan euskara oraindik itzulpen-hizkuntza baita legegintzaren alorrean. Izan ere, legegintzaren erdarek dute oraindik nagusitasun osoa (gaztelaniak Hego Euskal Herrian), eta euskarazko bertsioak lege-testuak idatzi osteko itzulpenak dira gehienetan. Alabaina, euskal legegintzari, itzultzaile eta hizkuntzalariek, urrats nabarmenak egin dituzte euskarazko lege-hizkeraren eredu beregain eta homologagarria garatu eta finkatzeko; eta, horri esker, aterabide eraginkorrak aurkitu dituzte lege-testu elebidunen idazketak eta itzulpenak sortzen dituzten buruhaustekak, zailtasunak eta kezkak argitzeko, konpontzeko eta arintzeko. Ahalegin horren emaitza dira, besteak beste, gaur egun sarean eskuragarri ditugun hainbeste kontsultabaliabide. Baliabide horien bitartez, bertatik bertara eta berme handiz argi lege-hizkerarekin lotutako hizkuntza-zalantza asko eta asko. Sareak eskaintzen dituen zabalkunderako aukerei esker, bestalde, edozein profesional, hizkuntzalari zein herritarren eskura jar daitezke baliabide horiek, eta horrek errazten du euskarazko lege-hizkeraren zabalkundea, harmonizazioa eta finkatzea. Ikuspegi horretatik, kontsulta-baliabideak funtsezkoak dira itzulpen-estrategiatik askatzen hasi eta korredakzioaren bideak jorratzen hasteko. Alegia, funtsezkoak dira itzulpen-gintzak eta hizkuntzalaritzak euskara juridikoaren garapenari egin dioten ekarria Zuzenbidearen profesionalen eskuetan jartzeko, eta, horrela, euskara erabateko funtzionaltasunez erabili ahal izateko legegintzan.

Egun, euskararen erabileraren inguruko kontsultak egiteko baliabide ugari daude sarean eskuragarri. Horietako batzuk hizkuntzaren erabilera orokorrarekin zerikusia duten zalantzak argitzeko balio dute gehienbat. Alabaina, esan berri denez, badira, halaber, lege-hizkerari dagozkion hizkuntza-auziak berariaz jorratzen dituztenak ere. Horien arteko gehienak lege-hizkera lantzen ari diren erakunde edota norbanakoen esperientziaren emaitza dira; alegia, legegintzan edota lege-itzulpenean izandako eskarmentuaren erakusgarri. Baina, badira, halaber, modu sistematikoagoan landutako eta garatutako baliabideak ere; alegia, esperientzia horiek erkatu eta hurbiltzeko asmoz eginak. Ahalegin partekatu horri esker, pentsatzekoa da epe ez oso luzean, bateratzen eta finkatzen joan ahal izango direla lege-hizkerarako euskaraz proposatu diren ereduak. Aldi berean, espero izatekoa da, ahalegin horiei esker eredu egokiak garatzen joatea lege-hizkera testuinguru eta testu ezberdinetan modu funtzional eta eraginkorrean erabili ahal izateko; ez lege-testuetan bakarrik (horiek ere denak era berekoak ez direla ahaztu gabe), baizik eta baita beste testu batzuetan ere: akademikoak, didaktikoak, zabalkundekoak, eta abar.



Ibilbide horretan beste urrats bat ematen laguntzeko, hona hemen sarean kontsulta daitezkeen baliabideen zerrenda bateratua. Ikus daitekeenez, hainbat erakunde, elkarte eta eragile ari dira modu aktiboan lege-hizkera lantzen euskaraz, eta sarean partekatzen dituzte beren lanaren emaitzak. Eskaintzen dituzten baliabideetan kontsultak eginez egiaza daitekeenez, ez datoz beti bat ez irizpideetan ezta proposamenetan ere. Baina, goragoko lerroetan esandakoagatik, kontsulta gurutzatuak egitea eta proposamen horiek erkatu eta aztertzea funtsezkoa da bateratze-bidean aurrera egiteko. Oso lagungarria izango litzateke tresnaren bat izatea (Euskalbar barraren antzekoa, adibidez), kontsulta horien emaitzak batera eskuratu ahal izateko. Baina, halakorik ez dugun bitartean, baliagarria gerta daiteke helbide elektronikoko jakingarrienak eskura izatea. Horixe da, bada, Euskara Juridikoaren Atariaren atal honetan eskaini nahi izan duguna. Horretarako, kontsulta-baliabideak zortzi kategoriatan banatu dira:

- **Lege-testuak euskaraz: liburutegi juridikoak**
- **Jurisprudentzia euskaraz**
- **Inprimaki eta dokumentu normalizatuak**
- **Hiztegiak eta datu-base terminologikoak**
- **Corpusak eta itzulpen-memoriak**
- **Estilo-jarraibideak**
- **Euskara juridikoari buruzko artikuluak eta ikerketak**
- **Zuzenbidearen alorreko hizkera lantzeko prestakuntza-materialak**

Baliabide guztiak ez dira elkarren pareko ez eskaintzen duten informazioaren kalitatearen ezta informazioaren ugartasunaren aldetik ere. Kontsultak egiteko moduak ere desberdinak dira gunearen arabera, eta horrek oztopatu egin dezake batzuetan eskuratutako informazioaren balioespena. Izan ere, lehen esandakoagatik, komenigarria dirudi baliabide horien azterketa



LEGE-TESTUAK EUSKARAZ

Liburutegi juridikoak eta aldizkari ofizialak

- [IKUSI] **Eusko Legebiltzarraren Lege Bilduma**
- [IKUSI] **Nafarroako Foru Legeak (Nafarroako Aldizkari Ofizialean)**
- [IKUSI] **Nafarroako Foru Legeak (Nafarroako Aldizkari Ofizialaren separatak)**

- [IKUSI] **Legeak/Leyes bilduma (UPV/EHU)**
- [IKUSI] **Liburutegi Juridiko Elebiduna (Deustuko Unibertsitatea)**
- [IKUSI] **Legeria Euskaraz (IVAP/IZO)**

- [IKUSI] **Hizkuntza Zuzenbidea (Euskaltzaindia)**
- [IKUSI] **Euskal Zuzenbide Zibilari (Zuzenbidearen Euskal Akademia)**

- [IKUSI] **EHAA: Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria**
- [IKUSI] **NAO: Nafarroako Aldizkari Ofiziala**
- [IKUSI] **ALHAO: Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala**
- [IKUSI] **BAO: Bizkaiko Aldizkari Ofiziala**
- [IKUSI] **GAO: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**
- [IKUSI] **EAO/BOE: Estatuko Aldizkari Ofiziala (euskarazko gehigarriak)**



JURISPRUDENTZIA EUSKARAZ

Epaiak, irizpenak, ebazpenak eta kontsultak

- [IKUSI] **Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datu-basea: epaiak euskaraz**⁽¹⁾
- [IKUSI] **EAEko auzitegietako ediktua (EHAA)**⁽²⁾
- [IKUSI] **Leiharen Defentsarako Euskal Auzitegiaren (LDEA) ebazpenak**
- [IKUSI] **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Irizpenak**
- [IKUSI] **Nafarroako Arartekoaren ebazpen, irizpen eta gomendioak**
- [IKUSI] **EAEko Arartekoaren ebazpen, irizpen eta gomendioak**
- [IKUSI] **Euskal Zuzenbide Zibilaren inguruko jurisprudentzia (FORULEGE)**⁽³⁾
- [IKUSI] **ELEBIDE Hizkuntza Eskubideak Babesteko Zerbitzuaren irizpenak**
- [IKUSI] **KONTSUMOBIDE** erakundearen kontsulten datu-basea
- [IKUSI] [IKUSI] **CONSUMER** aldizkaria: kontsulta juridikoak eta epaien iruzkinak⁽⁴⁾

(1) Bilaketa egiteko Autonomia Erkidegoaren eremuan "Pais Vasco" hautatu eta hizkuntzaren eremuan "Euskera" aukeratu

(2) Bilaketa egiteko "maila" eremuan "ediktua" hautatu

(3) Bilaketa euskaraz egin arren, zenbait dokumentu gaztelaniaz soilik eskaintzen dira

(4) Kontsulta juridikoak ikusteko www.consumer.es/consultorios helbidean sartu, dagokion kontsulta zabaldu (gaztelaniazko bertsioak azaltzen dira) eta hizkuntza aldatu. Sententzien inguruko informazioa eskuratzeko, berriaz, www.consumer.es/sentencias helbidera jo, dagokion sententzia aukeratu (gaztelaniazko bertsioak azaltzen dira) eta hizkuntza aldatu.,



INPRIMAKI JURIDIKOAK EUSKARAZ

Dokumentu estandarizatuen ereduak

- [IKUSI] **Euskal Zuzenbide Zibilaren arloko formularioak (FORULEGE)**
- [IKUSI] **Zuzenbidearen hainbat alorretako agiri-ereduak (ARTEZ)**
- [IKUSI] **Epaitegietako agiri-ereduak (UZEI)**
- [IKUSI] **Xedapen Orokorrak idazteko jarraibideak (ALHFA)**

- [IKUSI] **Udal Ordenantzak (EUDEL)**
- [IKUSI] **Udal Espedienteak (IVAP)**

- [IKUSI] **Esparru sozio-ekonomiko pribatuko agirien bankua (LANHITZ)**
- [IKUSI] **Enpresa arloko agiri-ereduen bilduma (EMUN)**
- [IKUSI] **Enpresa arloko dokumentuen eta inprimaki juridikoen ereduak (BFA)**
- [IKUSI] **Laneko kontratuak (GFA)**
- [IKUSI] **Gizarte arloko jurisdikzioko inprimaki eta dokumentu ereduak (LAB)**

- [IKUSI] **Etxebajeen komunitateko agiri-ereduak**
- [IKUSI] **Kontsumo-arbitrajearen inguruko inprimakiak**



LEXIKO ESPEZIALIZATUA ETA TERMINOLOGIA

Hiztegiak, datu-base terminologikoak eta glosategiak

- [IKUSI] **EUSKALTERM terminologia banku publikoa (Eusko Jaurlaritz)**
- [IKUSI] **Bizimena hiztegi terminologikoa (Bizkaiko Foru Aldundia)**
- [IKUSI] **EUROVOC thesaurusa (Bizkaiko Foru Aldundia)**
- [IKUSI] **Glosategi Juridikoa (UPV/EHU)**
- [IKUSI] **Legeak/Leyes bildumaren lexiko-zerrendak (UPV/EHU)**
- [IKUSI] **Oinarrizko Hiztegi Juridikoa (Deustuko Unibertsitatea)**
- [IKUSI] **Lege-testuen berbategi elebidunak (Deustuko Unibertsitatea)**
- [IKUSI] **Glosategi Juridikoa (UPV/EHU)**
- [IKUSI] **Legeak/Leyes bildumaren lexiko-zerrendak (UPV/EHU)**
- [IKUSI] **Epaitegietako lexikoa (Justizia Saila)**
- [IKUSI] **Epaitegietako dokumentuen lexikoa (Justizia Saila)**
- [IKUSI] **Administrazioko eta Zuzenbideko glosarioak (IVAP/IZO)**
- [IKUSI] **Toki Administrazioaren Hiztegia (IVAP/IZO)**



CORPUSAK ETA ITZULPEN-MEMORIAK

Zuzenbideko eta administrazioaren alorreko testuak

- [IKUSI] **ZCP-Zuzenbide Corpora (UPV/EHUREN EUSKARA INSTITUTUA)**
- [IKUSI] **Zuzenbide Corpus Elebiduna (UPV/EHU eta Justizia SAILA)**
- [IKUSI] **Epaitegietako Agirien corpus elebiduna (Justizia SAILA eta UZEI)**
- [IKUSI] **Bizimena itzulpen-memoria (Bizkaiko Foru Aldundia)**
- [IKUSI] **I-memoria itzulpen-memoria (Gipuzkoako Foru Aldundia)**
- [IKUSI] **IDABA itzulpenen datu-basea (IVAP/IZO, EUSKO JAURLARITZA)**
- [IKUSI] **EIZIE TMX itzulpen-memoriak (Itzultzaileen eta Zuzentzaileen Elkarteak)**
- [IKUSI] **IVAP/IZOren TMX itzulpen-memoriak (EUSKO JAURLARITZA)**
- [IKUSI] **Consumer Corpora [sententziak, kontsulta juridikoak...] (EROSKI)**
- [IKUSI] **Lexikoaren Behatokia [administrazioko testuak...] (EUSKALTZAINDIA)**



ESTILO-JARRAIBIDEAK

Estilo-fitxak eta idazkera-arauak

- [IKUSI] **Justizia Sailaren estilo-fitxen bilduma**
- [IKUSI] **Eusko Legebiltzarraren idazkera-arauak 1: Puntuazioa**
- [IKUSI] **Eusko Legebiltzarraren idazkera-arauak 2: Ortotipografia**
- [IKUSI] **Eusko Legebiltzarraren idazkera-arauak 3: Sintaxi-kontuak**
- [IKUSI] **Eusko Legebiltzarraren idazkera-arauak 4: Tratamendua**
- [IKUSI] **Eusko Legebiltzarraren idazkera-arauak 5: Ahozko testuen zuzenketa**
- [IKUSI] **Eusko Legebiltzarraren idazkera-arauak 6: Itzulpen-estrategiak**
- [IKUSI] **Normografia: Xedapenak idazteko jarraibideak (Arabako Foru Aldundia)**
- [IKUSI] **Herri-erakundeen izendegia**
- [IKUSI] **DUDANET**

Beste baliabide jakingarri batzuk:

- [IKUSI] **IVAPeko estilo-liburua**
- [IKUSI] **AZPIDAZKI**
- [IKUSI] **EIMAre**n estilo-liburua



EUSKARA JURIDIkoa

Ikerketak eta argitalpenak

- [IKUSI] **Zuzenbideko euskal hizkera berezia (Antton Elozegi)**
- [IKUSI] **Liburutegi Juridiko Elebiduna: terminologia (Andres eta Esther Urrutia)**
- [IKUSI] **Nafarroako lege-testuak: lexiko juridikoa (Andres eta Esther Urrutia)**
- [IKUSI] **Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean (Joseba Lozano)**
- [IKUSI] **Euskarazko Itzulpen Juridikoa (Josu Barambones)**
- [IKUSI] **Euskara Juridikoak 25 urte betetzen dituenean (Antton Elozegi)**
- [IKUSI] **Legeen hizkera, testu-antolatzaileen ikuspegitik (Andres Urrutia)**
- [IKUSI] **Performatibo juridikoak euskaraz (Andres Urrutia)**
- [IKUSI] **Mendebaldeko euskara zuzenbide-fakultateetan (Esther Urrutia)**
- [IKUSI] **Epaitegietako testuak estandarizatzeko teknikak (Aitor Gorostiza)**
- [IKUSI] **Epaitegietako Agiriak Normalizatzeko Batzordearen esperientzia (UZEI)**
- [IKUSI] **Euskara Juridikoa eta abokatuen hizkuntza-baliabideak (UZEI)**
- [IKUSI] **Axularren Zuzenbidea (Andres Urrutia)**
- [IKUSI] **Terminologia, itzulpena eta diskurtso juridikoa (Andres Urrutia)**
- [IKUSI] **Testugintza juridiko-administratiborako osagaiak (Andres Urrutia)**



PRESTAKUNTZARAKO BALIABIDEAK

Zuzenbidearen eta Justiziaren alorreko euskara

- [IKUSI] **Administrazioko eta Zuzenbideko euskara (Joseba Ezeiza)**
- [IKUSI] **Zuzenbidean (Joseba Ezeiza-HABE)**
- [IKUSI] **Komunikazioa Euskaraz: Justizia Administrazioa I (Joseba Ezeiza)**
- [IKUSI] **Komunikazioa Euskaraz: Justizia Administrazioa II (Joseba Ezeiza)**
- [IKUSI] **Zuzenbidea-1 (Elhuyar-HABE)**
- [IKUSI] **Zuzenbidea-2 (Elhuyar-HABE)**
- [IKUSI] **Enpresa euskaldunduz: fitxa juridikoen eskuliburua (BFA)**